

Folklorea distirarazi

Marta Garcia

Euskadiko Orkestraren esku-programa zorrotzean Mikel Chamizok zioenez, obren aukeraketari zein interpreteei erreparratuz, asteleheneko kontzertua denboraldiko euskaldunena izan zen. Gabriel Piñeren *Ramuntcho*-ren musika intzidentalaren oberturatik hasita, kontzertu guztia tradizioarekin bat egiten laguntzen diguten doinuaz blaitua egon zen. Lehen pieza honetan gainerako obretan nagusituko ziren kolore bizi eta dinamika oparoak hautematen hasi ziren orkestran. Hala, distira gailendu zen

Maurice Ravelen *Piano eta orkestrarako kontzertua*-n, konpositore lapurtarrak orkestraziorako bere gaitasuna koroatzen duen horretan. Lehen zartadak hasiera ematen duenetik, erritmo biziz eta kontrastez jositako pieza da; harien sinkopetan etenik gabe aurrera, errealitatea eta ametsa nahasi egiten direla dirudi. Euskadiko Orkestrako kideek, bereziki zurezko haizeek eta hariak, lan itzela egin zuten giro hori sortzen. Bestalde, Alfonso Gomez errepertorio hau interpretatzeko bikaina dela argi geratu zen behin eta berriro, *Allegramente*-aren erritmo jostalarietatik eta bortitzetatik

KRITIKA Musika

Euskadiko Orkestra

Zuzendaria: Juanjo Mena.
Pianoa: Alfonso Gomez.
Mezzosopranoa: Clara Mouriz.
Egitaraia: G. Piñeren *Ramuntcho* obertura, M. Ravelen *Pianorako eta orkestrarako kontzertua sol maiorrean* eta M. de Fallaren *Hiru puntako kapela*.
Lekua: Donostiako Kursaal-eko auditoriuma.
Eguna: azaroaren 27a.

Adagio assai irekitzen duen gai bakarti eta malenkoniatsura, pedalaren joko paregabea. Birtuosismoaren erakusgarri den *Presto*-an, haizeek berebiziko uneak eskaini zituzten, Menaren gidaritza zuzenaren fruitua. Bis gisa, Gomezek Manuel de Fallaren *Danza ritual del fuego* hunkigarria opari zigun, bigarren zatia hitzaurre ezin hobea. Hala, bigarren zatian *Hiru puntako kapela* eskaini zuten, «olé» indartsuekin hasi eta dantza giro askotarikoetan murgiltzen den balleta. Espainiako erritmo eta baliabide klasikoak nonahi, Euskadiko Orkestrak eta Menak osatzen

duten binomioak interpretazio zirraragarria eman zuen emaitza gisa. Instrumentu familien arteko oreka bikaina izan zen, eta *Mahatsak* zatian haizeek egundoko parte-hartzea izan zuten. Clara Mouriz ondo, *farruca* ederra entzun zen besaulkietatik, fagotak orbanik gabe itxi zuena. *Azken Jota*-n orkestrak gailurrera eramane zuten kontzertuan zehar zabaldutako aparteko elementuak. Oinak astintzea baino ez zen falta. ●

PD:

Maddi Sara
Goikoetxea Juanena

Mikelek, obra honetako protagonistak, «42 urteko malabaristatzat» jotzen du bere burua. Oreka mantentzen saiatzen da, oinak euskarri on batean ipiniz ibiltzen... Baina hor behean gertu ikusten ditu antsietatea, beldurra, bakardadea, egonkortasunik eza, fobiak, traumak, eta abar. Eroriko balitz, izango ote luke eutsiko dion sarerik? Berehalako heriotzatik salbatuko duen nor edo zer.

Bost urte kartzelan igaro ondoren, irteteko ordua iritsi zaio. Urte horietan guztietan, igorle misteriotso batek gu-

tunak bidali dizkio, sinadura eta postdatak hutsik uzten dituztenak. Hitzok bizitzarekin konektatuta mantentzen lagundu diote, eta aurki deskubrituko du nor dagoen horren guztiaren atzean. Igorle misteriotsoak inork baino hobeto ezagutzen du: badaki artileak alergia eragiten diola eta izugarrizko fobia diela inurriei. Badaki aspaldian ez duela sandiarik jaten, eta badaki arrazoia zein den ere. Haren ziega osatzen duten metro koadroetan, bakarrikzeta animatuari ekingo dio protagonistak, Charlotez jantzitako pertsonaia xeble batek zirikatu eta laguntzen duen artean; iraganera bidaiatu, eta ordura arte bizitakoaz hausnartuko du.

Besaulkian eseri, antzezlanaren laburpena irakurri, eta emanaldiaren lehenengo bost minutuak ikusi ondoren, iruditut zait banekiela zer ikusiko nuen. Antzeman nezakeen istorioaren nondik norakoa. Baina ez! Ezta gertutik ere. Sorpresek, bata bestearen atzetik, sinbolismoz betetako unibertso batera eramango zaituzte, non umorea, imajinazioa eta Silvio Rodriguezen nostalgikoentzako erreferentzia musikalik ez den faltako. Zerbait gehiago argitzea esperientzia zapuztea izango litzatekeenez, norberak deskubri dezala. ●

KRITIKA Antzerkia

Postdatarik gabeko gutunak

Egilea: Kepa Errasti.
Zuzendaria: Getari Etxegarai.
Gutunak: Iñigo Legorburu.
Tokia: Donostiako Gazteszena aretoa.
Eguna: azaroaren 25a.

ESNEAREN KOLOREKOA DEL COLOR DE LA LECHE

MIERDA DE CIUDAD

LA HISTORIA DEL ROCK RADICAL VASCO



ANTZERKIA - AGERTOKI IREKIA

Egilea eta egokitzailea:
Nell Leyshon

Zuzendaritza:
Fernando Bernués

Antzezleak:
Joseba Apaolaza
Miren Arrieta
Mireia Gabilondo
Aitziber Garmendia
Jon Olivares
Jose Ramón Soroiz

ABENDUAK

3 - Estreinaldia euskaraz
5, 6 - Estreinaldia gaztelaniaz

Estreinaldia Arriaga Antzokian

ANTZERKIA - AGERTOKI IREKIA

Dramaturgia eta zuzendaritza:
Olatz Gorrotxategi

Antzezleak:
Aritza Rodríguez
Olatz Gorrotxategi
Marta Álvarez del Valle

ABENDUAK 13



Bilbao

EL CORREO

GARA

Deia

Bizkaia

90

TEATRO

ARRIAGA

ANTZOKIA

TEATRO

ARRIAGA

ANTZOKIA

TEATRO

ARRIAGA

ANTZOKIA